

## Giro ona izan da jaietan

Haurrak eta krosa protagonistak ▶ 6



# Zeuden lanbide hastapenetako bi eskaintzak bateratu dituzte

**TOLOSALDEA** ▶ Tolosaldea Garatzenek eta Peñascal Fundazioak elkarlanerako akordioa sinatu dute ▶ 2



Akordioan parte hartu duten erakundeen ordezkariak atzoko prentsaurrekoan. LEIRE MONTES



GARAZI AZKUE

## 'Perrito piloto' izan da irabazle asto karreran

**ZIZURKIL** ▶ Mozorro onenak saritu dituzte urteroko ekitaldian; jaiak aurrera jarraitzen dute, baita Alkizan eta Bedaion ere ▶ 4

**AMEZKETA** ▶

## Finalerdiak Joxean Tolosa txapelketan

«Maila altua» izan da XV. edizioan ▶ 5

**TOLOSA** ▶

## Musika, dantza eta gastronomia, Extremadurako astean

Gaurtik hasita eta datorren aste osoan, ekitaldi ugari La Jara zentroan ▶ 3



HITZA

**LEITZA** ▶

## Hirigintza gaiak gaurko batzarrean

Harrobiako kontsultaz ere ariko dira ▶ 7

## HEZKUNTZA ▶

## LEIRE MONTES

Lanbide Hastapeneko eskaintza bateratuaren aldeko apustua egin dute Tolosaldea Garatzen eskualdeko garapen agentziak eta Peñascal Fundazioak. Hain zuzen ere, hitzarmena sinatu dute Lanbide Hastapeneko Programa aurrera eramateko. Eskualdeko formakuntza baliabideak sendotzeko beste pauso bat izan nahi du akordioak.

Lanbide Hastapeneko Programa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza departamentuaren ekimena da, eta Tolosaldeko udalekin batera eramaten du aurrera. Bigarren mailako hezkuntza titulua lortu ez duten 16-20 urte bitarteko gazteei lanbide baten ikasketak eskaintzea du xede, beren garapen pertsonalarekin eta profesionalarekin jarrai dezaten.

Orain arte, bai Tolosaldea Garatzenek —Lanbide Hastapeneko Zentroaren bitartez— bai Peñascal Fundazioak, Lanbide Hastapeneko eskaintza zuten. Bi proiektu horiek adostu eta bakarra jarriko dute martxan orain, amankomunean.

Bi zentrotako ordezkariak «pozik» agertu ziren hitzarmenaren sinadura ekitaldian, eta hemendik aurrera eskaintza «are hobea» izango dela adierazi zuten. «Eskaintza zabalagoa eta osatuagoa izatea ahalbidetzen du hitzarmen honek. Gainera, ikasleen beharretara eta enpresen eskakizunetara egokitzea erraztu egiten du», esan zuen Jokin Bildarratz alkateak eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakariak.

Eskolak zentro bakarrean emango dira aurrerantzean, Peñascal Fundazioaren egoitzan, Usabalen. 2004-2005eko ikasturtean honakoak izango dira eskaintzak: Zurgintza I eta II, Informatika eta Galdaragintza-Soldadura. Dena den, pixkanaka-pixkanaka eskaintza zabaldu egin nahi dute: «Proiektua sendotzen doan eanean, beste ikastaro batzuk eskaintzen saiatuko gara». Urriaren 1ean hasiko dira klaseak, eta izen-ematea zabalik da Peñascalen bertan: Usabal industriagunea, 5 C. Tolosa. 943 67 61 61.

## Arlo teorikoa eta praktikoa

Eskaintza doakoa da ikasleentzat, eta arlo teorikoa eta praktikoa jorratzen ditu. «Teknikak eta arlo praktikoa lantzeaz gain, baloretan ere heitzen da ikaslea. Ondoren, eskualdeko enpresetan gizarteratzea eta lan egitea du xede ikastaroak. Prozesu guztian, gainera, ikasle bakoitzari jarraipen zuzena

# Lanbide hastapeneko eskaintza bateratua, erronka eta apustu

Tolosaldea Garatzenek eta Peñascal Fundazioak Lanbide Hastapeneko Programa aurrera eramateko akordioa sinatu dute; eskualdeko formakuntza baliabideak sendotzea, xede



Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Tolosaldea Garatzeneko lehendakaria, eta Natividad Puertas Peñascal Fundazioko lehendakaria, hitzarmena sinatzen. LEIRE MONTES

## ESKAINNTZA ▶ IKASTAROKAK ETA IZEN-EMATEA

Aurtengo eskolak zentro bakarrean emango dira: Peñascal Fundazioaren egoitzan, hain zuzen ere. Izen-ematea zabalik dago bertan.

## IKASTAROKAK

- ▶ Zurgintza I.
- ▶ Zurgintza II.
- ▶ Informatika.
- ▶ Galdaragintza-Soldadura.

## IZEN-EMATEA

▶ Peñascal Fundazioa. Usabal industriagunea, 5 C. Tolosa. Telefono zenbakia: 943 67 61 61.

## IKASTURTEAREN HASIERA

▶ Urriak 1. Eskolak zentro bakarrean eskainiko dira aurtengoa: Peñascal Fundazioaren egoitzan.

gingo zaio; eta, era berean, familiei ere laguntza eta informazioa eskainiko zaie», azaldu zuen Juan Bedialauneta Peñascaleko ordezkariak. Bildarratz, bestalde, pozik agertu zen «eskaintza honi esker Tolosaldeko ikasleak eskualdean bertan geratuko direlako».

Era berean, ikasleak enpresetan aurkituko duten «giro beretsuan» heziko direla azaldu zuten ordezkariak: «Ordu-

tegiak, egutegia, lantegia egituratzeko era, lan praktikoa... Gehienak izango du lantoki eta enpresetan aurkituko duten giro eta itxura bera», azaldu zuen Bedialaunetak.

Gainera, formakuntza horren baitan, Eskola Graduatua lortzeko aukera ere eskainiko diete ikasleei. Titulua ateratzeko azterketak prestatzeko zenbait ordu izango dituzte ikasleek; horrela, Eskola Graduatua

lortuta, ikasten jarraitzeko edo lanean aritzeko aukera izango dute.

## Urtetako eskarmentua

Lanbide Hastapeneko Zentroa duela hamazazpi urte jarri zen Tolosan. Urte horietan guztietan 1.000 ikasle baino gehiago pasatu dira bertatik, eta eskualdeko eta inguruko enpresa eta lantokietan praktikak egiteko 200 hitzarmen inguru sinatu dituzte.

Peñascal Fundazioa, bestalde, duela hogeita urte sortu zen, Bilbon. Euskal Herriari aitindari izan zen Lanbide Hastapenaren alorrean. «Eskola porrotaren inguruan dagoen jendea aurrera ateratzen laguntzea» izan du helburu urte hauetan guztietan.

Duela zortzi urte jarri zuen egoitza Tolosan, eta formazioan, orientazioan eta lan munduratzeko aritu da. Dagoeneko, 200 ikaslelik gora pasatu dira bertatik.

## TELEFONOAK ▶

## LARRIALDIAK

▶ 112

**Alegialdea.** Osasun z.: 653212  
**Anoetaidea.** Medikua: 65 23 39  
**Asteasu.** Medikua: 69 24 23  
**Berastegi-Elduain.** 68 33 61  
**Bidegoian.** Medikua: 68 11 34  
**Ibarraldea.** Osasun etx.: 672411  
**Leitza.** Osasun z.: 948 510800  
**Lizartza.** Medikua: 68 20 77  
**Tolosa.**  
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111  
 ▶ San Esteban: 00 68 00  
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00  
 ▶ Asunzion klinika: 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)  
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58  
 ▶ DYA: 67 25 36  
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88  
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20  
**Villabona-Aitzondo.**  
 Anbulatorioa: 00 69 70  
**Zizurkil.** Aitzondo zerbitzu: 693930

## GARRAIOAK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89  
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40  
 ▶ Taxia: 67 04 20  
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

## EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06  
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14  
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

## GUARDIAKO FARMAZIA

**Gaur.** Olarreaga A.: Korreo, 2 (Tolosa). 943 67 01 28. Erbiti: O. Lizarraga, 7 (Leitza). 112.

## TOLOSALDEKO HITZA

**Publizitatea.** 661 67 88 18.  
 tolosaldean\_public@tolosaldeko-hitza.info  
**Tolosa.** 687 41 00 82 - 687 41 00 33.  
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info  
**Villabona-Aitz.** 687 41 00 22.  
 villabona\_aitzondo@tolosaldeko-hitza.info  
**Anoetaidea.** 687 41 00 22  
 anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info  
**Ibarraldea.** 687 41 00 32.  
 ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info  
**Alegialdea.** 687 41 00 34.  
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info  
**Leitzaidea.** 687 41 01 18.  
 leitzaidea@tolosaldeko-hitza.info

## iragarki laburrak ▶

## LANA

**Eskaintza.** Eskarmentua duen sukaldaria behar da. Igangetan jai. Telefonoa: 606 615 293.

## ETXEBIZITZAK

**Anoeta.** Anoetan hiru logelako etxebizitza salgai. 207.000 euro. 630 030 149.

## BESTERIK

**Zakurkumeak.** Gorbeaiko bi artzai zakurkume opari. Telefonoak: 943 69 41 10, 943 69 37 31.

KULTURA ▶

EGITARAUA ▶

GAUR

**16:00.** Kuartrola eta txinbon txapelketa.

**18:00.** Guadalupeko Ama Birjinari lore eskaintza eta ondoren *lunch-a*.

ETZI

**Egun osoan.** Eskulanen erakusketa zabalduko dute goizean, eta aste osoan egongo da zabalik.

IRAILAK 14, ASTEARTEA

**19:30.** Olerki emanaldia Errenteriko, Donostiako eta Tolosako Extremadurako zentroetako kide Gregorio

Perez, Emiliano Gañan eta eta Filo Fernandezek eskutik. Jarraian, Extremaduratik pasatzen den Santio bidearen inguruko hitzaldia Miguel Quinta, Extremadurako unibertsitateko irakasle eta kolaboratzailearen eskutik.

IRAILAK 15, ASTEAZKENA

**18:00.** Haurren Eguna: jokoak, marrazkiak, idazlanak eta txokolatada.

**19:30.** *Zer dakizu Extremadurari buruz?* lehiaketa.

IRAILAK 16, OSTEGUNA

**18:00.** Lurralde bakoitzeko

plater lehiaketa: migak, patata tortilak, tomate zopa, kaldereta, gazpatxo, tomate entsalada eta zorongolloa. Jarraian prestatutako platerak dastatuko dituzte. Era berean, Cencibel ardoaren dastaketa egingo dute, San Marcos Ardo Kooperatibaren eskutik.

IRAILAK 17, OSTIRALA

**19:30.** Extremadurako transumanziari buruzko hitzaldia, Jesus Garzoneren eskutik.  
**21:30.** Afaria udal ordezkari eta Gipuzkoako Extremadurako zentroetako kideekin batera. Ondoren, La Jarako taldearen emanaldia.

IRAILAK 18, LARUNBATA

**16:00.** Tute, mus eta uztai txapelketa.  
**18:00.** Lasarteko Semblante andaluz taldearen emanaldia.

IRAILAK 19, IGANDEA

**11:30.** Extremadurako meza Flor de Jara abesbatzak abestua Arrameleko San Juan ermitan.  
**12:30.** Toka eta igel txapelketa.  
**14:30.** Herri bazkaria: Extremadurako jakiak.  
**18:30.** Andoaingo Triana dantza taldearen emanaldia, garaikurren banaketa eta Kultur Astearen amaiera.

MENDIA ▶

Belate-Auritz mendi ibilaldia egingo dute bihar

Alpino Uzturre elkarteak mendi irteera antolatu du biharko. Belatetik Auritzera (Nafarroa) joango dira mendizaleak, eta 06:30ean Pablo Gorosabeletik irtengo dira. Informazio gehiago nahi izatera, Alpino Uzturrek Gudari kalean duen egoitzara joan edo 943 65 27 89 telefono zenbakira deitu.

KULTURA ▶

May Colmenerok gaur erakusketa zabalduko du

May Colmeneroren pintura eskolak erakusketa zabalduko du gaur 19:30ean Aranzurru Jauregian. Urriaren 9a arte izango da irekita, 17:30-etik 20:30era, astelehenetan eta jaiegunetan izan ezik. Colmeneroren zortzi obra eta bere ikasleen beste 125 ikusi ahal izango dira, teknika ezberdinetan egindakoak.

GIZARTEA ▶

Zeinu hizkuntza ikastaroa herrian, urritik ekainera

Tolosaldea-Goierriko Pertsona Gorren elkarteak antolatuta, zeinu hizkuntza ikastaroa egingo dute Tolosan urritik ekainera. Astearte eta ostegun arratsaldetan izango dira eskolak Inmaculada ikastetxean, eta izen-ematea zabalik da idazkaritzan: 08:30etik 14:00etara edo 15:30etik 18:00etara.

EUSKARA ▶

Matrikula epea zabalik Aitzol udal euskaltegian

Aitzol udal euskaltegian zabalik da matrikula epea ikasle zahar eta berrientzat. 10:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara eman behar da izena bertan, hilaren 21a baino lehen.

# Extremadurako jaki, ekitaldi eta doinuak, gaurtik aurrera

Kultur Astea antolatu du Tolosako La Jara kultur zentroak gaurtik hilaren 19ra; haien egoitzan eta herriko hainbat lekutan egingo dituzte ekitaldiak bazkideek

IRATXE ETXEBESTE

Tolosako La Jara Extremadura zentroak Kultur Astea antolatu du gaurtik hilaren 19ra. Aurtengoan 11. edizioa du Kultur Asteak, eta elkarteko kideek aurreko urteetako ekintza beretsuak prestatu nahi izan dituzte, «urtero arrakasta izan dutelako». Hala, ohiko bilakatu diren lurralde bakoitzeko plater lehiaketa, kuartrola, txinbon, toka, igel eta uztai txapelketa eta Extremadurarekin lotuta dauden solasaldiak jarraitzeko aukera izango da datozen egunetan herriko hainbat lekutan.

Hala ere, Guadalupeko Ama Birjinaren Egunean egingo dituzten ekitaldiak dira, guztien artean, La Jarako kideentzat garrantzia handien dutenak. Lore eskaintza eginez omen egiten diote Guadalupeko Ama Birjinari, eta jarraian abestu egiten diote La Jarako abesbatzako kideek. Horrela hasten dute, urtero, Kultur Astea. Gaur ere berdin egingo dute. Orduz gero astebetaz izango dute La



La Jarako koruko kideak, Guadalupeko Ama Birjinari kantatzen iaz, lore eskaintza egin eta gero. HITZA

Jarako bazkideek hainbat ekitaldi gozatzeko aukera. Baina elkarteko kideek ez dute Kultur Astea bazkideentzat bakarrik izatea nahi, eta tolosar guztiei egin diete gonbitea ekitaldi guztietan parte hartzeko. «Guk Euskal Herria maite dugu orain hamarkada batzuk hona etorri eta bertako kultura ezagutu genuelako, eta horixe bera lor-

tu nahi dugu tolosarrekin: gure kultura ezagutzuz, herritarrek Extremadura maitezeara». Arramele auzoan La Jarako kideek duten egoitzan egingo dituzte Kultur Asteko ekitaldi gehienak, baina herriko hainbat lekutan ere izango da ekimenik. Gainera, Almedralejo (Espainia) bi ardo etxetako ardoak dastatzeko aukera

izango dute La Jarako egoitzara joaten direnek; bihar, esaterako, *lunch-a* eskainiko dute eta Lar de barro ardoarekin batera, gutziak banatuko dituzte herritarren artean. Hilaren 16an Extremadurako herri bereko San Marcos kooperatibak ekoiztutako Cencibel ardoak izango da, bestalde, dastatzeko moduan.

 **HITZAk zozketatutako *Leidor Zineman* astebukaera honetan 'EL REY ARTURO' filma ikusteko bi sarreren irabazlea: ARANTZA UGALDE ZABALA (TOLOSA)**

JAIK ▶

# Herriko klasikoa: asto karrera

'Perrito piloto', Heidi eta 'Ideas de bombero' izan ziren irabazleak

GARAZI AZKUE

Festak herenegun hasi ziren Zizurkil, eta ekintza betetako bi egun izan dituzte zizurkildarrek orain arte. Aurretik ordea, beste hiru festa egun gelditzen dira.

Atzokoan, festetako ekitaldi berezia izan zen Zizurkilgo kaleetan barna: urteroko asto karrera. Hala ere, aurreko urteetan mozorroez gain lasterketa ere saritzen bazen, atzokoan, mozorro onenak saritu zituzten soilik.

Sei taldek hartu zuten parte atzo. Lehen saria, *Perrito piloto*-k eraman zuen, hegazkin eta guzti atera zen bikotea. Bigarren saria, Heidi eta bere familiari eman zioten; epaimahaiaren esanetan, «euren jantzi landuengatik». Eta hirugarren lekua Iñurriak taldeko gazteek eskuratu zuten, *Ideas de bombero* mozorroarekin, «aldatzeko izan duten abileziagatik». Izan ere ibilbide guztian zehar gutxienez hiru mozorro ezberdin jantzi zituzten.

**OSTATV JATETXEA**  
ITZIAR ETA AMAIA  
ONDO PASA  
FESTETAN!  
ALKIZA Tel.: 943 69 18 36

**AURRERA**  
taberna  
Tel.: 943 69 37 32 • ZIZURKIL

## EGITARAUA ▶ GAUR

### ALKIZA

**18:30.** Beteranoen arteko XIII. Pilota Txapelketa.  
**Jarraian.** Poteo herrikoia.  
**21:00.** Herri afaria Ostatur.  
**23:00.** Bertsolari jaialdia.  
**Ondoren.** Erromeria Etxabe anaien eskutik

### BEDAIO

**18:30.** Zagi ardoa.  
**Ondoren.** Agurtzane eta Jonekin erromeria.  
**24:00.** Toka txapelketa.

### ZIZURKIL

**11:00.** Xurdir, Ipotxen mundua. Haur jolasak.  
**13:30.** Marrazki lehiaketako sari banaketa.  
**17:00.** Bikersen erakustaldia. Joxe Arregi plazan bizikletekin egindako akrobaziak.  
**18:30.** Buruhandiak.  
**19:00.** Txakurren erakusketa Iturralde baserri inguruan.  
**Mozorro gaua.** Gune ezberdinetan emanaldiak:  
**23:00-24:00.** Malabarak txoznan.  
**24:00.** Break dance erakustaldia Joxe Arregi plazan.



**Lehen saria.** Aurtengo asto karrerako lehen saria Mugi Hadi-Zintzilik blusako kideek lortu dute. Taldeko bikoteak, *Perrito piloto* izeneko mozorroa kaleratu zuen atzo. Nahikoa lan izan zuten astoari eta karrozari tiraka laguntzaileek. G. AZKUE



**Bigarren saria.** Heidiren familia guztia atera zen kalera atzokoan. Kaketan plost blusako kideek Pedro, Heidi, aitona edota Klara irudikatu zituzten. Hirugarren saria lortu zuten. G. AZKUE



**Hirugarren saria.** *Ideas de bombero* jarri zioten izena Iñurriak taldeko kideek euren mozorroari, izan ere, gutxienez hiru mozorro ezberdin erabili zituzten ibilbidean zehar. G. AZKUE

## VILLABONA ▶ DANTZA

# Oinkari dantza taldeak latindar dantzen ikastaroa jarriko du abian

Urrian hasiko da ikastaroa eta ekaina arte luzatuko da

G. AZKUE

Villabonako Oinkari dantza taldeak proiektu berria jarri du abian ikasturte berrirako. Aurreko lehenean, latindar dantzen ikastaroa antolatu du. Bertan, *saltsa, merengea, batxata, txata-txata* edota *rueda* dantzak irakatsiko dituzte, besteak beste.

Ikastaroari urrian emango

zaio hasiera, eta ekaina arte luzatuko da, guztira bederatzita hilabeteko ikastaroa, beraz.

Ikastaroko ensaioak asteazkenetan izango dira Villabonako Txermingo ikastolako gantzen, 20:00etatik 21:30era. Ikastaroan helduek nahiz gazteek hartu dezakete parte hilean 15 euroren truke.

Ikastaroko irakaslea Elena Alzuri goimailako dantzaria

izango da; egun Donostiako Café Kandelako irakaslea da Alzuri.

Izena eman nahi dutenek hiru modu dituzte; iraileko astearte eta ostiraletan 20:00etatik 22:00etara Txermingo ikastolara hurbildu daitezke, harremanak@oinkari.net zuzenbide elektronikora idatzita edota 660 13 93 80 telefonora deituta ere eman dezakete izena.

**MANTENTZE FISIKO ETA ZUZPERTZE ZENTROA**  
• Masajea  
• Dietetika eta elikaduran aditua  
• Pilates metodoan oinarritutako gimnasitika  
• Kirol masajea  
• Gorputzeko grasaren analisiak  
Bulandegi bidea, 2 - beheko ZIZURKIL  
Tel.: 943 69 05 46

**EGARRI**  
Ondo pasa Jaietan!  
ERNIOBIDEA, 7 ZIZURKIL Tel.: 943 69 62 57

AMEZKETA ▶ KIROLA

# Finalerdietako maila guztietan sailkatu dira eskualdekoak

XV. Joxean Tolosa txapelketan parte hartu duten pilotarien «maila altua» azpimarratu dute antolatzaileek

OLAIA ESKITXABEL

Urtetik urtera sona handiagoa hartzen ari da Joxean Tolosa pilota txapelketa. Horren erakusle dira, esaterako, aurten partidetara bertaratu diren ikusleak: «Beasaindik hasi eta Hernanira bitarteko ikusleak izan ditugu», azaldu du Xalton Zabalak, antolatzaileetako batek.

Sonari esker, geroz eta pilotari gehiagok ematen dute izena txapelketan eta «pilotarien joko maila ere altuagoa da urtetik urtera». Finalerdietara iristen, beraz, nahikoa meritu izan dute pilotariek.

Eskualdekoen jarraipena

Legarreta urnietarra Amezeketako Zazpi-Iturri taldean aritzen da; Kadete mailan finalerdiko partida jokatu du bihar. «Herriko taldeko ordezkari bakarra izanda gogor egin behar-ko du finalerako txartela lortze-

ko», azaldu du Zabalak. Jubeniletan sailkatu direnen artean, bestalde, Ugaitz Renobales alegiarra da eskualdeko ordezkari bakarra; Mitxelena nafarra izango du aurkari. «Alegiarrak finalean egoteko aukera izan arren, Mitxelena pilotari gogorra» dela azaldu dute antolatzaileek. Besteak beste, Elurbe eta Esnaola kanporatzea lortu du nafarrak.

Nagusietan, Bidegoiango Beloso finalean egoteko «faboritoen artean» kokatzen dela azaldu dute.

Nafarrak indartsu

Arabako bi ordezkari sailkatu dira gaur eta bihar jokatuko diren XV. Joxean Tolosa Pilota Txapelketako finalerdietarako: Jauregi maeztuarra eta Axpe aramaioarra. Bizkaitarrik ez da sailkatu.

Ustekaberik handiena nafarrek eman dutela azaldu dute txapelketako antolatzaileek.

FINALERDIAK ▶

GAUR

**Kadeteak.** Jauregi-Iragi.  
**Gazteak.** Renobales (Alegia)-Mitxelena.  
**Nagusiak.** Beloso (Bidegoian)-Retegi.

BIHAR

**Kadeteak.** Legarreta-Otxandorena.  
**Gazteak.** Axpe-Goenaga.  
**Nagusiak.** Arruti-Aranburu II. (Zizurkil).

Uste baino pilotari nafar gehiagok eman du izena Joxean Tolosa txapelketako XV. edizioan eta «lan handia ematen ari dira».

Urtetik urtera finalera iristea zailago jartzen dela kontutan hartuta «aukera aprobetxatzeko» gomendio luzatu diete antolatzaileek pilotariei.



## Zikoinak herria bisitatzeko

**ORENDAIN ▶** Abuztuan, Orendaingo jaietan zikoin talde bat geratu zen Larreta baserriko zelai ondoan. Bertako baserritarra, Daniel Gorostidi, eta bizilagun bat bertara hurbildu ziren zikoin kopurua eta egoera ezagutzera. Arazo gutxi gabe bi zikoin harrapatu zituzten; zikoinak gaixo egon zitezkeela pentsatu zuten eta Diputaziora deitu zuten. Basozain bat joan zen zikoinen bila. Basozainarekin batera, zelaian beste sei zikoin hilda aurkitu zituzten baserritarrek. Basozainak goiz hartan behelaino itxia zegoela eta zikoin taldeak tentsioko kableren aurka jo ote zuenaren susmoa hartu zuen. Argazkian, Daniel Gorostidi ikus daiteke, zikoina eskuetan duela. HITZA

AMEZKETA ▶

## Zozketatutako txekorra jaso du Aitor Etxeberriak

Amezeketako herri eskolako Guraso Elkartearen alde, herriko jaietan Limousin arrazako txekor eder bat zozketatu zen; 1.719 izan zen zenbaki sarritua. Saria aitor Etxeberria Aristi gazteari egokitu zitzaion eta Guraso Elkartetik jakinarazi dutenez, «jaso du bere saria». Gurasoek euren esker ona adierazi nahi diete «gure asmoak aurrera eramateko laguntza eskaini dute guztiei».

ALEGIA ▶

## Alegiar bat hil da kamioiak harrapatuta

Hirurogeita hamasei urteko alegiar bat hil zen herenegun kamioi batek harrapatuta. Ertzaintzak zehaztu duenez, «ezbeharrak San Juan kalean gertatu zen 16:20ak adiera Daf kamioi batek D.G.N. izeneko gizezko bat harrapatu zuenaren». Anbulantzia ezbeharrak gertatu zen lekura bertaratu zen berehala, baina ezin izan zuten gizezkoaren heriotza egiaztatu besterik.

ALEGIA ▶ GIZARTEA

## Salgai aurkitzen dira Langurre Eguneko babarrun-jaterako txartelak

Irailaren 19an izango da; txartelak salgai aurkitzen dira Kultur Etxean

O. ESKITXABEL

Irailaren 19an izango da Langurre Egunean egiten den babarrun-jatea; antolatzaileek txartelak salgai jarri dituztela jakinarazi dute.

Babarrunak odolkiz lagunduta joango dira; ondoren, oilaskoa, mahatsa, kafea, kopa eta purua eskainiko dituzte.

Helduek zortzi euro eta hamabi urte bitarteko haurrek bost euro ordaindu beharko dituzte. Salneurriaren baitan ogia, ura, ardoa eta sagardoa ere sartzen dira.

Plastikozko edalontziak banatuko dituzte antolatzaileek; gainontzeko mahai-tresnak

norberak eraman beharko ditu.

Txartelak Kultur Etxean salgai aurkitzen dira 09:00etatik 12:00etara eta 16:00etatik 21:00etara bitartean. Txartelak lortzeko azken eguna, datorren ostirala, irailaren 17a izango da.

Gehienez 250 lagun onartuko dira babarrun-jatean; eta «Alegian bizitakoak edo jaiotakoak joan daitezke bertara».

Bazkal ordua 14:30ean izango da eta mahaiak eta aukiak 19:00etan jasoko dira: «Ordura arte ez da autorik abiatuko», diote antolatzaileek. Eguraldi txarra egitekotan, bestalde, pilotalekuan izango da bazkaria.



lazio babarrun-jatea. HITZA

# JAKON INGELESA

- 8 URTETIK AURRERA
- MAILA GUZTIAK, AZTERKETA PRESTAKETA: (First, advanced,...)
- GOIZEZ, ARRATSALDEZ, LARUNBATETAN
- ENPRESETAN

P.Gorosabel 2 1º (Trianguloan) **TOLOSA**  
Telf. 943-652372 (10-12 eta 4-8)

## IBARRA ▶

Jubilatu  
ibilaldia, fritada  
eta afaria

Atzo hasitako Bizi-nahi elkar-  
tearen astearen barruan,  
gaur ere hainbat ekitaldi  
izango dituzte. 9:30ean ibilal-  
di neurtua hasiko da; ondo-  
ren hamaiketako izango  
dute; 17:00etan fritada lehia-  
keta izango da parte hartu  
nahi duten guztientzat eta  
ondoren afaria. Afari hone-  
tan izan nahi dutenek izena  
eman behar dute.

## GAZTELU ▶

Ikastaroak eta  
mintegiak  
KZgunean

Ekainetik hona hainbat ikas-  
taro eman ditu Gazteluko KZ-  
gunean. Irailtik aurrera be-  
rriz, tutore iraunkorrik gabe  
jarraituko du martxan. Ha-  
mabostaldi, ostegunetan,  
tutore bat izango da zalantza  
guztiak argitzeko, eta, horrez  
gain, mintegiak eta oinarri-  
ko ikastaroak emango dira.  
Mintegi horien zerrenda KZ-  
gunean izango da.

## BELAUNTZA ▶

Botika naturala  
eta aromaterapia  
ikastaroa

Irailaren 14tik aurrera botika  
naturala eta aromaterapia  
ikastaroa emango du Itziar  
Salegik, asteartetan 19:00-  
etatik 21:00etara, bi hilabete-  
tan zehar (16 ordu). Ikastaro-  
an egidako sendagai eta  
erremedio naturalak bakoi-  
tzak bere etxera eramango  
ditu. Gaur da izena emateko  
azken eguna, Kultur Etxean  
edo 943 67 00 20 telefonon  
(Angela) 17:30etik 20:00eta-  
ra. Hileko 20 euro kostatzen  
da eta lehen kuota izena  
emateko unean ordaindu be-  
harko da.

## BERROBI ▶ JAIEN BALORAZIOA

Giro ona eta jendetza  
handia izan dira  
aurten sanaustinetan

70 partaidetik gora izan ziren II. Herri Krosean; Manu  
Hurtado eta Izaskun Zubeldia izan ziren irabazleak



Herri kroseko parte-hartzaileak irteko prest; zirkuito gogora zuten aurtean. BITTOR MADINA

## ERREDAKZIOA

Berrobiko sanaustinak pasatu  
dira eta, oro har, giro ona izan  
dela esan daiteke, ohi bezala.  
Herri afari arrakastatsu eta  
jendetsua izan zen. 250 lagu-  
netik gora. Giro bikaina jarri  
zuten Epelde eta Larrañaga tri-  
kitilariak. Ostiral arratsaldeko  
sagardo festan ere bete egin  
zen Iriarte aurreko plazatxo.  
Larunbatean jendetza han-  
dia bildu zuen Akelarrek. Erro-  
meriak eta berbenak ez daude  
oraindik erabat galduta. Goi-  
zalderra arte luzatu zen jai.

Igande arratsaldean Urrebu-  
ru frontoia lepo bete zen herri  
kirolen jaialdia ikusteko. Ikus-  
kizun polita eskaini zuten Ola-  
sagasti eta Larretxea aikzola-  
riak eta Goenatxo eta Haimar  
Irigoiari harri jasotzaileak. Be-  
rrobi bertako harri trakets bat  
(100 kilo pasatxokoa) jasotzea  
ere jarri zieten lanen artean eta



Herriko haurrek ederki pasatu zuten buruhandiekin jolasean. B. MADINA

izan zituzten nahikoa komeria  
altzatzeko.

## Krosa, arrakastatsua

Astelehenean, jaiak bukatzeko,  
umeen eguna izan zen. Haur jo-  
lasak, merienda, karaokea...

Igande goizean arrakasta-  
tsua izan zen Berrobiko II. Herri

Krosa. Pixkanaka bidea egiten  
ari da. Aurten, helduetan baka-  
rrik, 50 lagun izan ziren partai-  
de. Haur eta gazteak kontutan  
hartuta, 70etik gora.

Kilometro eta erdiko zirkuito  
bati bost itzuli eman zizkioten  
helduek. 7,5 kilometro, guztira.  
Zirkuito gogorra da, gutxi-  
gehiago aldapa gora baita er-  
dia eta aldapa beheara beste er-  
dia eta erritmoa hartzeko oso  
zaila da.

## SAILKAPENAK ▶

## Mutilak.

1. Manu Hurtado	25.09
2. Pabi Urizar	26.07
3. Xabier Barberena	26.18

## Neska.

1. Izaskun Zubeldia	34.00
2. Eder Aldabe	36.51
3. Mirari Eraso	41.32

## GUTUN@K ▶

Belauntza,  
hiltzen ari den  
herria

Aurreko ikasturtean guraso  
batzuk euren kezka azaltzera  
hurbildu zitzaizkigun Udalera:  
«herrian gero eta haur gehia-  
go dago, baina ez dago ezer  
bertan hazi daitezzen», esan zi-  
guten une haietan Belauntza-  
ko alkatetzan geundenei, Be-  
launtzako Sustraiak herri pla-  
taformari, alegia.

Zeintzuk ziren beren ustean  
eman beharrezko pausoak  
galdetuta, lehenik eta behin,  
haurtzaindegia irekitzea pro-  
posatu ziguten. Aurrera era-  
mateko behar zirenak Udalak  
egin zituela aginduta, lanari  
ekin genion. Dagoeneko ber-  
randu zen Jaurilaritzaren pla-  
nean sartzeko. Hala ere, herria-  
ri zerbitzu hori eskaini behar  
geniola eta, Kultur Etxeko areto  
nagusia, goizetan, haurtzain-  
degi bihurtu genuen. Bi haur  
izan ditugu 2003/04 ikasturte-  
an, uztaila arte hain zuzen.  
Esan nahi dugu ekimen hau ez  
duela Udalak bakarrik bultzat-  
tu, Uli mankomunitateak ere  
lagundu du aurrera eramaten.

Baina, guk ez genuen gauza  
horretan gera zedin eta hu-  
rrengo eperako pausoak eta  
bidea egiten hasi ginen. Haur-  
tzaindegia, behintzat, jarrai-  
pena izan behar baitzuen. Eta  
ekin genion. Gizarte laguntza-  
learekin eta udal-arkitektoare-  
kin batera lokal aproposa bilat-  
tu genuen. Eta gero, aurrekon-  
tuak eta «papeleoa».

Eta honekin batera haur  
parkea. Pixkanaka herria haur  
eta gazteentzako zerbitzuak  
eskaintzeko asmoan. Izan ere,  
herri txikitako oso garrantzi-  
tsua baita haurrentzako eta  
gazteentzako oinarriko zerbi-  
tzuak eskaintzea herritik kan-  
pora joateko beharrik izan  
gabe. Herriak bere ezaugarriak  
manten ditzan.

Baina, alkatetza lapurtu zi-  
guten PNV-Erroizpe-EAkoek.  
Eta lapurketarekin batera al-  
daketak. Geroztik Udala herri-  
tarren zerbitzura jarri beha-  
rrean, herria beraien zerbitzu-  
ra jarri nahian dabilta. Eta  
herriko taberna itxi zuten be-  
zala, haurtzaindegia ere  
bukatu egin dute. Papo!

2004/05 ikasturtean ez  
dago haurtzaindegirik. Hil  
egin dute. Etea herriko tabe-  
rak itxita dirau. Eta haur pa-  
rkea? Oso garestia omen alka-  
tesaren esanetan.

Honela, haurtzaindegiaren  
antzerari dira hiltzen Belaun-  
tza PNV-Erroizperen-EAren  
eskutik.

ITZIAR ARRATIBEL (SUSTRAIAK-EKO  
KIDEA) ▶ BELAUNTZA

**www.tolosaldekohitza.info**

▶ sar zaitetz eskualdeko web atarira

▶ inkestak, eztabaidak, eguneko albisteak,  
argazki bildumak, zerbitzuak, zorion agurrak...

LEITZA ▶ UDALA

# Gai mamitsuz ariko dira gaur burutuko den udal batzarrean

Hirigintzako hainbat puntu ez ezik, harrobiaren inguruko herri kontsultaren gaineko erabakia ere hartuko dute



Leitzarar ibaiaren eratzten den puntuan atera ohi dira urak. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

Gaur gauean, 21:00etan Leitzako udaletxean burutuko den aparteko batzarrean puntu mordoskari buruz eztabaidatuko da, arlo oso desberdinekoak eta garrantzia izan dezaketena asko.

Ingurumena eta hirigintzari lotutako gaiak dira eztabaidagai gehienak. Izan ere, herri kontsulta izanen dute hizpide batzarrean.

## Herri kontsulta

Gai hau, hain justu uztailaren 30ean burutu zen bilkuran ere izan zuten mahai gainean, baina orduan adierazi zutenaren arabera «batzordean hitz egitekoa dagoenez, hurrengorako uztea», erabaki zen. Hori dela eta, berriz ere gaurko batzarrean sartuta dago puntu hau eta Harrobiari Buruzko Herri Kontsultaren Aldeko Taldeak egindako eskaerari eman behardako erantzuna erabakitzeakotatzen dira.

Gogoratu behar da, ekainaren 17an, talde honek, «Albiñoko parajearen harrobia eraikitze-ko asmoak herritarrengan eragindako kezkarri erantzunez eta gai honi buruz herri kontsulta egiteko eskaera eginez», zioten egun hartan, 442 sinadura aurkeztu zituela Udalean, «27/2002 Foru Legeak kasu

deratze plana onartu edo ez ere erabakiko dute, hirigintzako beste gaien artean, uholde- en prebentziorako egitasmo modura.

## Hirigintza Plana berritzea

Eta alor bereko puntuen artean, AR4 banaketa-areari, alegia Ifurristako industrialdeari dagokionez, Udal Planaren aldatuta puntuala, Landa industrialdeko nabe baten salmentako jakinarazpenari erantzuna, eta Leitzako Udala eko Hirigintza Plana berritzeko, Nafarroako Gobernuarekin egin beharreko hitzarmen proposamena izanen dituzte mahai gainean.

Ogasunaren arloan, Leitzako Lantzen elkartek dituen mailaguen inguruko zenbait kontu erabaki, abal baten berritzea zehazki, eta kiroldegiko akatsei buruzko espedienteari hasiera emateko akordio proposamenaz ere beste hainbeste egin ondoren, bi mozio izanen dituzte esku artean eztabaidatu eta hala nahi izanez gero, aurrera ateratzeko.

Mozio bat, Larrain Herri Plataformak proposatutakoa eta bestea Aralar taldeak egindako proposamen eskaera dira, biak ere festetan jazotakoak.

Ikusten denez, udaletxean gai nahiko mardulak izanen dituzte gaur burutuko den batzarrean, abuztuko oporraldiaren bueltan, eginen duten lehen-dabizikoa.

hauetarako ezartzen dituen pauso eta arauak jarraituz», argitu zuten eran. Uztaileko ohiko batzarrean publiko egin zen udal idazkaritzako txostenean ere lege honen aipamen zuzen egiten zen eta herri kontsultaren aldeko taldeak emandako pausoen zuzentasunaren egiaztapena ziurtatu.

Herri kontsulta egiteko erabakia beharrezko osoz hartu beharrezkoa da eta bere horretan egin beharreko galdera ere, erabaki horrekin batera aurreratu beharrezkoa, goragoan aipatu lege horren arabera. Gai honen inguruan beraz, hau da gaurkoan argituko dutena.

Ildo beretik jarraituz, Erasote eta Gorritzarren erreken ubi-

## APARTEKO UDAL BATZARRA ▶

2004ko irailaren 10an, 21:00etan.

### GAI ZERRENDAA

1. Azken batzarreko akten onespina.
2. Herri kontsulta.
3. Leitzako Udal Planaren aldatuta puntuala: AR4.
4. Leitzako Udal Planaren berrikuspeneko hitzarmena.
5. Landa II Industrialdeko nabe baten salmentako jakinarazpena.
6. Leitzako Erasote eta

Gorritzarren erreken Ubideratze Planaren onespina.

7. Leitzako Lantzen-en mailaguen berritzea abala.

8. 5. poligonoko lurzati baten sailkapena aldatzeko, Hirigintza Planaren aldatuta puntuala.

9. Kiroldegiko akatsei buruzko espedienteari hasiera emateko akordioa.

10. Aralar taldearen proposamen eskaera.

11. Larrain plataformaren salaketa.

12. Oharrak eta berri emateak.



## Aurreneko eguna izateko... nonbait hor!

**ESKOLA HASIERA ▶** Atzo hasi ziren eskolak Leitzan eta Areson, eta askotariko irudi eta iritziak ikusi eta entzuteko aukera izan zen. Goizean, puntual aski, han ziren umeak, eskola atarrietan, irakasleei zeharka begiratuz, gelakideekin jolasean, liburu eta karpetei ezin eutsiz, kozkorragoak maleta bizkarrean zutela jostaketan, tikiak gurasoekin... Baten bat gosaldutako gabe ere bai, urduritasunaren eraginez. Bakoitzak bere eran hasi du urtea, baina gehientsuenek ere gustura ekin diote lanari. Bi eskoletan ere, goiza elkar ezagutzeko baliatu dute eta ikasturteko ordutegia azaldu eta egitasmoen berri ematekin gain. oraindik ere erosi beharreko azken materialen zerrenda egin dute. Gaur ez dute aparteko lanik egin: hormirudiak marraztu eta margotu, tikiak, jostatu eta kantari ari... Edozein moduz, goizean gustura sartu badira ere, ateratzea atseginago egin zaie. Eta atean zain zizuten etxekoei egindakoaren berri zehatza ematen berehala hasi dira. Goiko argazkian, Leitzako Erleta eskolako haurrak, eta behekoan Aresoko eskolako ikasleak ikasturteko lehen egunean. JAIONE ASTIBIA

## iragarki laburrak ▶



Amazabal kalea, 37-behea  
31880 LEITZA (Nafarroa)  
Tel.: 948 51 05 34  
mug.: 649 47 66 15  
e-mail:  
jmbuldain@eresmas.com

**Berrobi.** Ebe abiki unifamiarrak. 205 m<sup>2</sup>-ko ebebizitza, 50 m<sup>2</sup>-ko garajea eta 40 m<sup>2</sup>-ko lorategia.

**Leitza.** Pisua eta garajea salgai. Hiru logela, sukaldea eta bainu berriak, egongela, balkoia eta ganbara. Berokuntza badu. 150.253,02 eurotan salgai.

**Leitza.** Taberna eta jatebe-taberna salgai.

**Gorriti.** Eraikitzen ari den etxe unifamiar ederra salgai. Aukera ezin hobea.

Harpidedunei banatua ▶ 2004ko irailaren 10a, ostirala ▶ II. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Abaltzoketa, Aduna, Albitur, Alegia, Alkiza, Alzo, Ametzeta, Anotza, Balarriano, Berastegi, Eibau, Hernialde, Ibarra, Irua, Larrain, Leizaburu, Lizartza, Orendain, Oñena, Tolosa, Vilabona, Zuzuri

Gipuzkoako Foru Aldundia

Eusko Jaurfentzia Kultura Saila

Herriaren Nazioarteko Erakundeak

GAURKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

27

hoztena

18

BIHARKO EGURALDIA

goizez



arratsaldez



**HITZA-KO BEZEROEN ARRETA ZENBAKIA**  
(zalantzak, harpide egiteko...)

**943 30 43 46**

**AIURRI ▶**



**Aldizkaria.** Aiurri.  
**Zenbakia.** 218.a.  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 2.500 ale.  
**Gai nagusia.** Oporraldiari agur.  
**Beste gaiak.** Udako jaiak; Adunako arauak; Amasamendi txukunduta; Ioritz Galarraga dantzaria; Asteasun haurtzaindegi berria; **Argitaratzailea.** Larramendi bazkuna.  
▶ Berria 47, 3. esk. Villabona  
▶ 943 69 64 50  
▶ aiurri@topagunea.com  
▶ www.aiurri.com



**Jaietako 'Bartolo' txekorraren jabe berriak**

**IBARRA ▶** Urtero bezala, sanbartolometan *Bartolo* izeneko txekor bat zozketatu dute. 2.693 zenbakia suertatu zen irabazle eta txartel honen jabea argazkian ezkerretik eskuinera, txekorraren atzean, agertzen diren Ibarroko bi bikote hauek izan dira: Eider Epelde, Arkaitz Uranga, Kiko Romero eta Eider Zubeldia. Zer egingo dute txekorrarekin? Hori beraiei galdetu beharko diezue. **HITZA**

**GALTZAUNDI ▶**



**Aldizkaria.** Galtzaundi.  
**Zenbakia.** 197.a.  
**Orrialdeak.** 28.  
**Tirada.** 5.500 ale.  
**Gai nagusia.** Marimi Ugalde, Irurako alkatea.  
**Beste gaiak.** Xabi Fernandez; Arkupe denda; Manifesta 5; Kontseiluarekin hitzarmena; udako oporrak...  
**Argitaratzailea.** Galtzaundi Euskara Taldea.  
▶ Nafarroa 6, behe. Tolosa  
▶ 943 65 50 04  
▶ galtzaundi@galtzaundi.com  
▶ www.galtzaundi.com

**AGENDA ▶**

**DEIALDIAK**

**Belauntza.** Botika Naturala eta Aromaterapiari buruzko ikastarorako izen-ematea 10a arte. 943 670020.  
**Berastegi.** Irailean zehar egur taila, laboreak eta yoga

ikastarorak izango dira Gaztainondo elkartearen.  
**Tolosa.** Judo, aerobik eta pilatesen izena emateko epea zabalik da Berazubiko kiroldegiko judo gelan 18:00etatik 20:00etara.  
**Tolosa.** Peñascal Fundazioak Lanbide Hastapenetan matrikula ireki du. 943 676161

**Tolosa.** Alpino Uzturrek Belate-Auritz mendi irteera antolatatu du iganderako, irailak 12, goizeko 6:30ean Gorosabeletik aterata. Izen-ematea: 943 65 27 89.  
**Tolosa.** Harizpek urriaren 16tik 30erako oporrak antolatu ditu Benidormen 370 eurotan dena bane. Izen-ematea hilaren amaiera arte elkartearen bertan.

**ERAKUSKETAK**

**Hernialde.** Leire Markinezen pinturak. Ostatuan.  
**Tolosa.** Miren Gonzalez *Puzzleak.* Aranburu Jauregian.  
**Tolosa.** *Zaharkinak,* ondaren etnografikoaren bilduma.  
**Tolosa.** Txaro Medranoren koadroak. Sorron dendan.

**Tolosa.** Olivia Sanchezen koadroak Lanbroa tabernan.  
**Tolosa.** Marisa Vivancoren koadroak Saikin tabernan.  
**Tolosa.** May Colmeneroren eskolako ikasleen lanak Aranburu Jauregian. Gaur 19:30ean izango da inaugurazioa. Urriaren 9a arte egingo dira ikusgai.

**ZORION AGURRAK ▶**



**ZORIONAK BIKOTE**

'Maleta' ondo bete eta eztei bidaia ondo pasa. Lizartzako lagunak.



**ZORIONAK**

**Maria Mujika (Amezket).** Abuztuaren 10ean 88 urte. Zorionak eta muku handi bat etxekoan partetik. Beti bezala jarrai dezazun.



**URTE ASKOAN**

**Izaro Gabirondo (Alegia).** Gaur 8 urte. Zorionak guraso eta batez ere Ibairren partetik.



**URTE ASKOAN**

**Izaro Etxaniz Gorostidi (Tolosa).** Gaur 7 urte. Zorionak eta muku handi bat Belateko sorginboari.



**URTE ASKOAN**

**Maialen Aburuza (Bidania).** Gaur 10 urte. Zorionak printzea. Zure anai-arreba Aora eta Oñatz eta gurason partetik.

**HITZA, zorion agurren tartea**  
Urtebetetzak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:  
**HITZAren egoitzetara:**  
Araba etorbidea, 5 behea - **TOLOSA**  
Udaletxeko bulegoa - **LEITZA**  
Mesedez, argazkia bi egun lehenago ekarri.  
**Mila esker!**